

## AZIDO-BASE: ARIKETAK

1. 0,05 M den HA azido baten pHa kalkulatu. Kalkulatu 25 mL HCl baten disoluzioaren mol-kopurua pH berdina lortzeko.

$$K_a = 2 \cdot 10^{-6}$$

2. Kalkulatu 0,2 M amoniako disoluzio baten pHa eta disoziazio gradua (portzentaetan emanaz).

$$K_b = 1.8 \cdot 10^{-5}$$

3.  $\text{HNO}_3$  disoluzio baten pHa 2,15 da. Kalkulatu bere kontzentrazioa.

4. 40 mL NaOH baloratzeko 24 mL azido sulfuriko 0.1 M behar izan dira. Kalkulatu disoluzio basikoaren molaritatea.

5. Kalkulatu KOH 0,61 M disoluziotik behar den bolumena 20 mL azido sulfuriko 0,245 M baloratzeko.